



Esp.kodea: 2019RBAR0042

Gaia: 2019ko 3. hiruhilabetean TGBk onartutako kredituak aldatzeko espedienteen berri ematea

Hasiera eguna: 2019/10/24

## ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2019ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

### “INFORMAZIOA KREDITU ALDAKETEN ESPEDIENTEEI BURUZ, TGB-K ONARTUTAKOAK 2019KO 3. HIRUHILEKOAN (2019RBAR0042).

Udal Plenoak, Barne Antolaketaren Batzordearen ondoko diktamenaren berri jasotzen du:

“2019ko Aurrekontuen exekuzio arauen 4. atalean, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako kreditu aldaketen espedientei buruzko informazioa bidali behar zaio Osoko Bilkurari hiruhilero. Behar hori betetzeko helburuaz, Barne Antolaketaren batzordeak, kronologiaz ordenaturik, 2019ko 3. hiruhilekoan onartutako espedienteen laburpen honen berri ematen dio Osoko Bilkurari:

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2019-07-18koa, onartzen duena “1.0409.480.231.30.00 – Pobreziaren kontrako plana: larrialdiak”, 50.000€ zenbatekoan handitzea (dotazioa 350.000€tan gelditzen da); gastu hori finantzatuko da bi modutan. Lehena, kreditu gaikuntzaren erregimenean, diru-sarreretako “2.0409.410.000.00.05 - EJ-ko Pobrezia planerako ekarpenarekin” kontu-sailean lortuko diren sarrera handiagoekin. Bigarrena, kreditu transferentziaren erregimenean, ondorengo kontu-sailetatik transferituta:

- “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” partidatik, 18.898,25 € (dotazioa 47.141,75 €-an gelditzen da), “1.0800.601.153.38.00.2018 - Makatzena – urban.frontoia parkea” partidatik, 16.730,64 € (dotazioa 47.545,80 €-an gelditzen da) eta “1.0805.601.161.00.00.2018 – Ura eta saneamendua: inbertsioak” partidatik 10.658,81 € (dotazioa 9.722,08 €-an gelditzen da).

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2019-07-18koa, onartzen duena 2.561,42 €-an handitzea “1.0406.481.337.10.00 – SUDC; jubilatuei omenaldia eta beste batzuk” partidaren diru

<b>Kodea</b>	H19/00865	<b>Udala</b>	ARRASATE
<b>Data</b>	2019/aza./11	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAHAM3.9.iali
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHAM39.iali">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHAM39.iali</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





**Esp.kodea:** 2019RBAR0042

**Gaia:** 2019ko 3. hiruhilabetean TGBk onartutako kredituak aldatzeko espedienteen berri ematea

**Hasiera eguna:** 2019/10/24

kopurua (dotazioa 27.561,42 €-an gelditzen da), “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” partidatik bideratutako kreditu transferentziaren bidez (dotazioa 44.580,33 €-an gelditzen da).

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2019-07-18koa, onartzen duena “1.1200.227.342.10.04 – Musakolako igerilekuak – sorosleen zerbitzua” partida sortzea, 44.000 €-an , “1.0100.500.929.00.00 – Kreditu globala” partidatik bideratutako kreditu transferentziaren bidez (dotazioa 580,33 €-an gelditzen da).

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2019/09/12koa, onartzen duena 7.000 €-an handitzea “1.0804.623.153.40.00 – Lantaldeko ekipamenduko inbertsioak” partidaren diru kopurua (dotazioa 116.000 €-an gelditzen da), “1.0802.601.171.00.00 – Haur parkeak” partidatik bideratutako kreditu transferentziaren bidez (dotazioa 118.000 €-an gelditzen da)”.

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2019ko azaroaren 11n.

O.E.

Alkatea

<b>Kodea</b>	H19/00865	<b>Udala</b>	ARRASATE
<b>Data</b>	2019/aza./11	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAHAM3.9.iali
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHAM39.iali">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHAM39.iali</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

